

Ramon Diaz Garcia Itsas Komandantziako sukaldaria Hernanin lurperatu dute

■ Senideak ditu Hernanin eta haien panteoian sartu dute, ustez ETA-k bonbaz hildako loiolatarra ■ Senideek eta lagunek eman zioten azken agurra.




Pilar Gorostegi, erdian, Hernaniko kanposantutik ateratzean, senideak ondoan dituela.

DONOSTIALDEKO tanatorioetik ekarri zuten Hernanira Ramon Diaz Garcia-ren gorpua. Salamancan jaio eta Loiolan bizi zen; ogibidez, sukaldaria zen Espainiako Armadako Itsas Komandantzia. Pilar Gorostegi alargunak senitartekoak ditu Hernanin eta familiak hala nahita, Ramon Diaz-en gorpuari Hernanin eman diote lur.

SENIDEAK ETA LAGUNAK

Ez da, ez politikorik, ez kazetaririk izan lur ematera-



Ramon Diaz Garcia.

koan, familiak berak halaxe eskatuta. Senideak eta lagunak eman zioten azken agurra kotxepean bonba jarrita hildako loiolatarrari. Denera, 100 lagun inguru bildu ziren, asko eta asko hernaniarrak.

“AMA, GOAZEN”

Orduerdi inguru iraun zuen lur emateak. Hamabiak laurden gutxitan iritsi zen gorpua kanposantuko kapilara. Hilerritik ateratzean, begiondo bustiak eta besarkadak izan ziren. Aintzane, 23 urteko alabak, “ama, goazen” esan arte. □

GIPUZKOAKO ‘TRIALSIN’ TXAPELKETA

Munduko txapelduna ere Hernanin da gaur

■ Proba Fagollagan da ■ Goizeko 10:00etan.



Hauxe da munduan onena; badaezpada ere ondo babestuta.

PUNTA puntako *trialsin* bizikleta proba izango da gaur Hernanin. Zirkuito bat osatu nahian ariko dira maila ezberdinetakoak; baita munduko txapelduna bera ere.

IKUSI ETA PARTE HARTU

Ikusteko aukeraz gain, parte hartzekoa ere izango dute gaztetxoek. Bizikletak bertan egongo dira. □

Osiñagako auzo elkarteak bilera du gaur

■ Harriatsuko eskolan, eguerdiko 12:00etan ■ Auzoko arazoak, tren... dituzte hitz egiteko kontuak.

OSIÑAGAKO auzo elkarte-koek bilera dute gaur, eta zer hitz egin asko gainera.

GAI ZERRENDA

-Auzoko arazoak: Bideak, errekek, zubiak, argiak e.a. aztertuko dituzte.

-Auzoko jaiak: Ekainean

badira ere, aurrez hasiko dira antolatzen.

-Abiadura Haundiko Trena: Auzotik ere pasako da. Hori ikusiko dute.

Horrez gain, Olazagirre SA, mangeraren kokapena eta beste hainbat puntuz hitz egingo dute. □

Hernaniko Bandaren kontzertua Sandiusterrin

■ Gaur, igandea, eguerdiko 13:00ean.

BOLA TXAPELKETA

Zerainen tirako dute, goiz eta arratsalde

■ Antonio Miner dijoa oraingoz aurrena.

UGALDE, S.A.
SUKALDE ALTZARIAK

Lastaola industrialdea p.16
Tel. 943.551.598
Faxa 943.552.067
20120 HERNANI

AMEGAR, C. B.

ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK -TB -
BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxa 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

BIKAIN

OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti
Bikain...

Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI

■ FUTBOLA

Mutilak Azpeitian eta Neskak Zubipen, gaur

■ Puntu garrantzitsuak: mutilak erdialdean eta neskak goialdean segitzeko ■ Lagun Onak-Hernani Garmendipen, 17:00etan; Hernani-Tolosa Zubipen, 11:00etan.



Pasaiko porteroa hernaniarren tiroa gelditzen, atzo Zubipen.

3. MAILAKO taldeak beharrezkoa du gaur Azpeitian puntuatzea, sailkapeneko behaldera joateko arriskuan baita bestela.

Neskek, berriz, oso fuerte hasi zuten denboraldia. Liga aurrera joan ahala, ordea, ezin izan diote forma puntu horri eutsi. Gaur irabazita goialdean segiko lukete oraindik.

JUBENILEK GALDU

Atzo Ohorezko mailako jubentilek 1-4 galdu zuten *Pasajesen* kontra. Sailkapen erdialdetik behera daude. □

■ BOLEIBOLA

Hernani KE-k 1-3 galdu CV Haroren kontra



Eusebio mutilak partiduan sartu nahian. Saiatu ziren baina...

AZKEN bi partidu onak eginda hartu zuen atzo Hernani KEk Haro taldea. Atzo, ordea, oso gaizki jokatu zuten eta irabazi beharreko partidua galdu. Senior mailan jokatzeko ari diren jubentilek oso maila ona duten arren, horrelakoetan nabaritzen zaie esperientzia falta. Jokoak: 29-27, 23-25, 19-25, 22-25.

UPV Hernanik ere atzo jokatu zuen Textil Santanderinaren kontra. Partidua, ordea, erredakzioa itxi ondoren amaitu zen. Emaizta bihar. □

MENDIRIZ MENDI

Urkitara dijoaz gaur gaztetxo eta helduak

■ Goizeko 08:00etan irtengo dira Atsegindegitik.

MENDI buelta ederra egingo dute gaur Mendiriz Mendikoek. Gaztetxoentzako irteera izan arren, hauen guraso eta beste zenbait helduago ere joango da igandeko nagiak kentzera.


tetxoentzako beste irteera bat izango da. Izena emateko, Mendiriz Mendiko lokaletik pasa otsailaren 1a baino lehen.

Bulego orduak: astelehen, ostegun eta ostiraletan arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Prezioa, berriz: Helduentzat 600 eta gaztetxoentzat 300 Pta. □

HURRENGO ASTEAN ZUMAIA-ELORRIAGA

Gaur zortzi (otsailak 4), gaz-

Jatetxea



Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
LARUNBATETAN ITXITA

Hernaniko Kronikan

publizitatea egiteko:

☎ 943 330899

■ WATERPOLOA

Aurren-bigarrenak neurtuko dira gaur Gasteizen

HERNANIKO mutilek *Menditxoren* kontra jokatu dute gaur. Sailkapeneko lehen postuan hernaniarrak dijoaz, jokatu-tako partidu guztiak irabazita; bigarren, berriz, arabarrak.

LEHEN MAILARA

Hernani bigarren Euskal ligan dago aurtun. Lehen postuan bukatuz gero goiko kategoriara igoko litzateke. Menditxori irabazita alde nabarmena aterako lioke eta ez dirudi, Gasteiztarrek kenduta itzal egingo dien beste talderik dagoenik. Beraz, gaur jokatu da liga, neurri haundi batean. □



**ARALAR
TABERNA**
ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

■ HITZ BITAN



Kotxea, istripua izan eta gero.

✓ KOTXE ISTRIPUA

Orona pareko kurban istripua izan zen ostegunean. Gaueko 21:00ak inguruan *Opel Corsa* txuri bat kunetara sartu zen; herioan bolantazoa eman eta lehenengo petrila, eta ondoren pareta jo zituen. Kotxeak zartako haundia zuen; gidariak sustoa galanta. Bihurgune horretan bat baino gehiago dira istripua horrelaxe izan dutenak.

✓ ESKU PELOTA

Esnal eta Oiaga aurrez aurre gaur Errioxan.

Esnalek Oregi izango du atzelari; Oiagak, berriz, Mendia. Biak profesioaletan daudenez gero, elkarren kontra jokatzeko duten 4garren aldia da. Esnal, bestalde, laster hasiko da bigarren mailako binakako txapelketan. Txapelketako lagun Mendia izango du: iaz txapeldun gelditu zen bikote berbera aterako da, beraz.

✓ EHIZA

Urnietarrak aurren-bigarren Inguruko Txapelketan. Jose Luis Tolaretxipi gaztea da txapeldun berria. Xoxokako ehiztariak 10 pieza bota zituen: 4 faisán eta 6 eper. 1012 puntu atera zituen, dena. Bigarrena, Jose Iraola, iazko txapelduna eta aurtengo Euskal Herriko txapelduna. Iraolak 6 pieza bota zituen. Hirugarren, Gaizka Irigoien, Astigarragako. Honek ere 6 pieza, baina, puntu gutxiago atera ditu. Hernaniarrak arunt makal ibili dira. Loiarte salbatu da: zortzigarren, 4 piezekin. Besteak, oso atzera.

Atzoko txapelketan, ehiza asko bota zen: 70 askatu eta 59 bota. Aurrengo hirurek Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute, baina, hori datorren udazkenean izango da.



Inguruko ehiza Txapelketako irabazleak sariak jasota.

| | | |
|---------------|---|--|
| AGENDA | ❖ ZINEA Karramarro uhartea 17:00etan, Biterin Los Angeles de Charlie 19:30etan, Biterin. | <i>Vietnameko argazkiak</i> Zumardi jatetxean. |
| | ❖ ERAKUSKETAK Olga Izquierdoren Postalak Txema tabernan. | ❖ MUSIKA Dantzaldia <i>Trakets</i> taldearekin 19:30etan, Oialumen. |

| ZERBITZUAK | |
|----------------------------|--|
| ☎ TELEFONOAK | ☎ FARMAZIAK |
| ▶ Taxiak: 943 550093 | ▶ Egunez: Sagastiberri Urbieta, 7 ☎ 943 552941 |
| ▶ Udaltzaingoa: 943 333288 | ▶ Gaez: Sagastiberri Urbieta, 7 ☎ 943 552941 |
| ▶ DYA: 943 464622 | |
| ▶ Autobusak: 943 556662 | |
| ▶ Anbulatorioa: 943 557750 | |